

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 18a / 620. zenbakia



## ERRAMU ZAPATUA

Abelburuak, baserriko produktuak,  
artisau lanak eta jai-giroa nagusi

ELKARRIZKETA: PEPA BOJO SPIKOLOGOA/6 • KULTURA: KOGOLLO PARTY CREW TALDEA/11



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 18**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63

**ZAPATUA, 19**  
MOZOS, Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15

**DOMEKA, 20**  
MOZOS, Iparragirre 2 ..... 943 76 12 15

**ASTELEHENA, 21**  
CAMACHO, Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74

**MARTITZENA, 22**  
ZABALA, Barrenkalea 25 ..... 943 76 16 87

**EGUAZTENA, 23**  
GUALLAR, San Antonio 5 ..... 943 76 11 05

**EGUENA, 24**  
ESTELLA, Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 53 47 20  
Osasun etxea ..... 943 76 24 40  
Asepeyo ..... 943 76 16 43  
Pakea ..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23  
Odol emaleak ..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

**GARRIAK**  
Taxiak ..... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32  
Igerilekuak ..... 943 76 20 51  
Kultura etxea ..... 943 77 91 58  
Liberutegia ..... 943 77 91 62  
Kirolegia ..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia ..... 943 76 14 92  
Erregistroa ..... 943 76 13 15  
Jardun ..... 943 76 36 61  
Idolaz ..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea, Bergara ..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea ..... 943 76 26 85  
Bedelkar ..... 943 76 04 68  
Akulu AEK ..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53  
Bergarako notarioa ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Labegarieta</b> Domekak: 11:00. <b>San Lorentzo</b> Zapatuak: 20:00. <b>Angiozar</b> Domekak: 11:00.
<b>Santa Marina</b> Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	<b>Moja Zaharrak</b> Lanegunak: 08:00. <b>Mizpirualde</b> Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
<b>Sierbak</b> Lanegunak: 19:30	<b>Antzuola</b> Domekak: 10:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>Osintxu</b> Domekak: 12:00.	<b>Uzarraga</b> Domekak: 10:00.
<b>Elosu</b> Domekak: 11:00.	<b>Elgeta</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	
<b>Elorregi</b> Domekak: 10:30.	

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.  
**San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

**OHARRAK**

**1979AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ZAPATUAN**

1979an jaiotako enbuzakariak zapatuan, martxoaren 19an, Txarrantxa jatetxean. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, bihar, zapatua, 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

**1954AN JAIOTAKOEN IRTEERA APIRILAREN 9AN**

1954an jaiotakoek Getariara eta Zarautzera irteera egingo dute apirilaren 9an. Izenematea Euskadiko Kutxan egin daiteke, 70 euro ordainuz. Bazkaria Lagunak erregelatzen izango da. Izena emateko epea apirilaren 2ra arte egongo da zabalik.

**KLOWN IKASTAROAK ASTE SANTUAN BERGARAN**

Oihulari Klown taldeak antolatuta, klown ikastaroak (hasiera eta sakontze mailak) izango dira Bergaran martxoaren 23tik 27ra. Argibideak 607 20 45 03 zerbakian.

**JARDUNENAGENDA**

**TXORIMALO LEHIAKETA BIHAR**  
Jardun elkarteak antolatutako txorimalo lehiaketa izango da, zapatua, 11:00etatik aurrera Ibargarai kalean. Sari banaketa eguerdiko 12:30ean egingo dute.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Ohikoa den moduan, 12- 14 urte bitartekoak arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira, bihar, zapatua, Udal Euskaltegian. 14- 16 urte bitartekoak, 18:00etatik 20:00etara. Eztabaidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak... eta abar izango dituzte Txorimalo taldekoek.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildokindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


**ORAINDELA 10URTEBERGARAN**

**Claus Moller danimarkarra irabazle Gorlan**

Claus Moller danimarkarrak irabazi zuen 1995eko martxoaren 12an jokaturako Gorlako Igoera. Mollerek erraz eskuratu zuen garaipena, helmugatik bi kilometrorra David Cancela eta Jose Javier Gomez iheslagunak atzean lagata. Beteranoen mailan, berriz, Jose Fernandez nagusitu zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**



Leuntasuna  
—Arek estau leuntasun askorik ibiltzen umiekin.

JON IRAEGI

**ASTEKOPELIKULAK**

**'LOS CHICOS DEL CORO'**

ZUZENDARIA: CHRISTOPHE BARRATIER. AKTO-REAK: GERARD JUGNOT, FRANÇOIS BERLEAND.

**HARIA.** Clement Mathieu solfeo irakasleak ez du lanik aurkitzen. Barnetegi bateko mutikoak aldaraziko ditu musikaren laguntzaz.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean eta 22:30ean. 95 minutu.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



**EL CARMEN**

GARBIKETA ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banaketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbaziok  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



## ATREBENTZIAEZPADA/ Aste Santuko oporretarako planik egin duzu?



PEDRO EGAÑA

Ez, herria zaintzen geldituko naiz. Asteburu hone-tan Bartzelonara noa Rea-la ikustera, baina Aste San-tuan ez naiz kanpora joango. Beste urte batzue-tan joan izan naiz oporre-tara Realaren aitzakian.



NARCISO MILLAN

Bai, astelehenean joango naiz, Zaragozako herri bate-ra. Bertakoa naiz eta sarri-tan joaten naiz bisitan. Aste Santurako joango naiz, bai-na beharbada oporraldia luzatu egingo dut, erreti-ratuta nago eta.



LOLI RIOS

Oraindik ez dut erabaki. Aukera asko ditut, baina senarrak toki batera joan nahi du eta semeek beste batera; beraz, euren esku dago nora joan. Azkenean, agian Bergaran bertan geratuko gara.



GEMMA IDIGORAS

Ez dut planik egin, herrian geratuko naiz. Orain dela urte asko joan nintzen kan-pora, baina azken urteotan ez naiz irten. Udako opo-rretan joango naiz nora-bait, eta bietan joatea gehiegi da.



BERNARDO JESUS GLEZ. DE SAMPEDRO

Bergaran geldituko naiz, herria ere norbaitek zain-du behar du eta. Urteren baten joan naiz kanpora, baina nahiko gertu: Liza-rrara, Santanderrera... Gai-nontzean, asko bidaiatuta-koa naiz.



AFRICA CAMPO

Bai, Zamorara joango naiz. Bertakoa naiz eta urtero egiten dut bisita Aste San-tuko prozesioak ikustera; oso ederrak dira, gainera. Andaluziakoeekin aldera-tuta serioagoak dira, han jai giroan egiten dituzte eta.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK OZTOPO ARKITEKTONIKOAK** Haritz Bikuñak esan digu bera elbarritua izanik hainbat oztopo dituela herriko toki batzuetara gurgildun aulkiarekin iristeko. "Plazako tabernan egin dutena ulertezina da, taberna berria egin eta elbarriondako sarbiderik ez ipintzea, alegia. Udalaren eraikin batzuetan badaude zerbitzuak, eta horietara joatea zaila da; liburutegira eta KZgunera, esaterako". //A.

## ETABARRUAN...

ASTEKOAK /5

### Epaitegiko lanak

Epaitegia eta Ariznoa Plaza zaharberritzeko lanak amaitu dituzte dagoeneko.

KIROLAK /8

### Berraondo-Galartza VI.a

Berraondo antzuolarra eta Galartza VI.a aurrez aurre gaur gauean Bergarako Udal Pilotalekuan.

KULTURA /11

### Amparanoia Bergaran

Amparanoia musika taldeak emanaldia egingo du gaur gauean Jam aretoan, 22:00etan.

## ASTEKO DATUA

# 23

### GRADUKO TEMPERATURA MARTITZENEAN

Azkenaldiko hotzetatik berora pasatu gara aste honetan. Martitzenean 23 graduko temperatura izan zen Bergaran. Gainera, ez du euririk egin. Beraz, udaberri giroa heltzen ari dela dirudi.

## BESTEKE SANA

“

Zilarrezko osagarrietan aukera zabala du-gu: belarritako, eraz-tun, eskumuturreko, lepoko, zintzilikari, mahuka-bikiak eta gakorrazak. Belarritakoak dira arrakastatsuenak. Gazteen artean zilar mexikarra sal-tzen da gehien, dituen kolore deigar-riengatik. Helduagoen artean, itali-arra, urre zuriaren antzekoa delako. Salmenta gehienak udan izaten dira, osagarriak ikusarazteko denboraldi aproposena delako. Gabonetan ere, salmentak nahiko handiak izaten di-ra, osagarriak oparitzeko aukera e-gokia izaten delako. Noizbehinka, nik sortutako bitxiak izaten dira erakus-gai. Denda nahiko txikia denez, ez du-gu tokirik gehiagorentzat. Halere, lagun baten kreazioak ekarri nahi ditut, eta sortzaile berrienak, oihartzuna izan dezaten”  
AINHOA IBARRA / Haraia zilar-dendaren jabea 'Zabalik' /05-03-10

## BERAIEK DIÑO/E/ Mikel Elkoroberezibar



Martxoak 13

Martxoaren 13an espainiar polizia batek, bere semea-ren laguntzaz, Angel Berrueta okin iruindarra tiro batez hil zuen. Berruetaren delitua ETaren biolentzia kondenatzen zuen kartel bat ez jartzea eta ondorioz, demokra-zia baten bizi garenez, polizia batek erabaki zuen Berruetak zigorra merezi zuela.

Gizarteko beste sektore handi bat, berriz, ez dute tiroz akabatzen, fisikoki desagerrarazi ezin dutenez euren instituzioetatik, komunikabideetatik eta eguneroko bizitzatik desagerra-razten saiatzen dira.

Estatuko agintariak erabaki dute ETA ez kondenatzeagatik ez daukatela eskubiderik, kondena hitza infernuko edo zeruko atean zabaltzen dituen giltza magikoa bihurtu da. Gaur egun espainiar estatuan demokrata izateko, Errege Katolikoen garaian moduan *auto de fe* delakoa egin behar da eta biolentzia kondenatzen ez

duenak infernuko sua ezagutu-ko du. Baina oraingoz ez ditut entzun PSOEk agintariak GALEko atentatuak kondenatzen edo PPkoak Fragak Gasteizen egindako sarraskia kondenatzen. Halere, horiek lasai asko hitz egin edo gobernu berean parte har daiteke.

Pertsonak eta taldeak legez kanpo utziko dituzte PP-PSOEk, beste batzuk ezer egiten ez duten bitartean eta espainiar demokraziak eskaintzen duen zeru *rojigaldan* gustura eta ainge-ruen moduan bekatu barik bizi direnean.

Erdi aroan gertatu zen moduan togadun eta mikrofo-nodun inkisidore berri hauek ideiak eta sinismenak ezin izango dituzte legez kanpo utzi, horiek norberaren barruan daudelako eta Euskal Herrian behin eta berriz ikusi dugulako nahiz eta ofizialki ez existitu, euskararen kasuan iparralde-an, egon badirela eta goizago edo beranduago onartu behar-ko dituztela.

**“Ideiak eta sinismenak ezin izango dituzte legez kanpo utzi, horiek norberaren barruan daude”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Irati Agirreazaldegia,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



JAIK/ Artisau-lanak, abelburuak edota baserriko produktuen postu ugari izango da bihar

# Erramu Zapatuko Feria ospatzeko dena gertu

EDU MENDIBIL

Aste Santuaren atarian ohikoa denez, Erramu Zapatuko Feria ospatuko da Bergaran. Goizean goizetik ez da girorik faltako erdiguneko kaleetan. Abelburuak, baserriko produktuak edota artisau lanak izango dira ikusgai.

Ohikoa denez, Feria 09:30ean zabalduko dute eta bazkaltzeko ordura arte ez da girorik faltako herrian. Besteak beste, abelburuak, Eusko Labelako produktuak, makineria edota artisau-lanak ikusgai izango dira erdigune aldeko kaleetan. Udalak emandako informazioaren arabera, 50 artisau inguru eta beste horrenbeste ekoirole erorriko dira. Era berean, trikitilariak, txakur leren erakusketa, zantantzarrak edota Jardunek antolatutako Txorimalo Lehia-keta ere iragarri dute biharko.

## HAINBAT ALDAKETA TRAFIKOAN

Feria dela eta, Ibargarai, Herri Lagunak eta Irala kaleetan ezin izango da autorik aparkatu 06:00etatik aurrera. Ibargarai itxita izango da. Ahal den neurrian autorik ez erabiltzea gomendatu du Udaltzaingoa.

## JOLASAK ARRATSALDEZ, BERTSOAK GAUEZ

Arratsaldean, umeendako jola-



Erdiguneko kaleetan izango da zer erosi, zer jan eta zer edan.

sak izango dira San Martin Plazan, 17:30ean. Eta gauean bertso jaialdia egongo da Udal Pilotalekuan, 22:15ean. Angel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Sustrai Colina,

Joxe Agirre eta Maialen Lujanbio arituko dira bertsoetan eta gai-jartzailea Jon Zaldúa izango da. Bertso jaialdirako sarreak 6 eurotan salgai jarriko dituzte.

## REGINO VALLE/ANTOLAKETA BATZORDEKOA

*“Feria ikaragarri hazi da azken urteotan; egun polita da Bergararako”*

E.M.


Regino Vallek 30 urte inguru darama Erramu Zapatuko Feriako antolaketa batzordean. Azken urteotan Feriak berebiziko indarra hartu duela adierazi diosku Reginok.

## Noiztik ospatzen da Erramu Zapatuko Feria?

Aspaldikoa, neuk bizi guztian ezagutu dut. Gertatzen da 1960ko hamarkadan galtzen hasia zela, eta 1970eko hamarkadaren hasieran bultzada berria eman geniola udaletxetik. Ordutik ikaragarri hazi da; azken urteotan izan duen arrakasta ikustea besterik ez dago. Egund polita da.

## Antolaketan hasi zineneko urteetan nolako zen Feria?

Artisau gutxi izaten zen eta abelburuek zuten protagonismo handiena. Bestalde, Ahari-jokoa edota idi-probak antolatzen genituen orduan Katabian. Urte baten guardia zibilak gure bila



etorri ziren, beharrezko balaienik ez eskatzeagatik...

## Eta, orain, zer nabarmenduko zenuke?

Egote den giroa. Egund berezia da eta jai-giroa nabari da kaleetan. Ahal bada, ni ere saiatzen naiz gozatzen. Artisau-lanak atsegin ditut gehien.

## Badirudi eguraldiak ere lagunduko duela...

Bai, horrek ere lagunduko du jai ondo ospatzen.

## Herritarrek bat egin zuten Korrikarekin eguaztenean

E.M.

Korrikaren 14. ekitaldia iritsi zen Bergarara eguaztenean, 18:00ak aldera. Herritar ugari bat egin zuten euskararen aldeko jaiarekin eta eguraldia lagun asko izan ziren zapatilak jantzi eta korrika egitera animatu zirenak. Euskararen aldeko konpromisoak eta kirolak bat egin zuten berriz ere. Oñatitik zetorren Korrika eta Labegaraietan egin zioten ongi-otorria.

Aurretik herriko ikastetxe-etako gaztetxoak izan ziren protagonista. Korrika Txikia ospa-


tu zuen ikasleek. Euskararen lekukoaren atzetik Korrika egiteaz gain, beste hainbat ekitaldi izan zituzten eguazten arratsaldean.

## DOMEKAN AMAITUKO DA BILBON

San Martin plazatik 18:10ean igarozen Korrika. Bergara zeharkatu ondoren, Elgetarako bidea hartu zuen Korrikak. Euskaldun berriak batetik eta Andolin Eguzkitza euskaltzaina zena bestetik omendu nahi izan dituzte aurtien. Korrikaren 14. ekitaldia domekan, hilaren 20an, bukatuko da Bilbon.



Arratsaldean herriko gaztetxoak izan ziren Korrika Txikiko protagonista.



## Akats baten zuzenketa

Intereseko telefonoak 5. orrian

**Ospital eta anbulatoriak**  
Begarako anbulatorioa 943 03 54 00



**HIRIGINTZA/** Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin ditu lanak, 281.000 euroko aurrekontuarekin

# Epaitegia zaharberritzeko lanak amaituta egon arren, atzeratu egin dute inaugurazioa

E.M.

Urtebete pasatxo igaro da Bergarako Epaitegiko zaharberritze lanak hasi zituztenetik. Dagoeneko lanak amaitu dira eta egunotan inauguratzeko ziren lanak. Hala ere, azkenean ekitaldia atzeratu du Jaurlaritzako Justizia Sailak.

2004ko urtarrilean jarri zituzten abian Bergarako Epaitegia zaharberritzeko lanak. Egunotan amaitu dituzte lanak eta azken ukituak ematea besterik ez da falta. Ariznoa plazak zein Epaitegiko eraikinak itxura berria daukate. Herritarren artean ere eztabaida piztu dute lanek: batzuen gustukoa bada ere, hainbat herritarrek kritika ezkorrak egin dizkiote proiektuari. Udal osoko bilkuran ere horren gaineko eztabaidak izan dira, besteak beste lehen Ariznoa plazan ziren

arbolak kendu eta haien ordez bakarra jarri dutelako. Bergara Aurrerako ordezkariak beren kexa azaldu zuten azken ez-ohiko bilkuran.

## EZINDUENDAKO SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin du Epaitegia egokitzeko proiektua. Epaitegia XIX. mendaren bigarren erdikoa da. Besteak beste, ezinduendako sarrera egin dute, eta horretarako hesitxo bat egin dute eraikinaren aurrealdean. Erakinaren estalkia konpondu, fatxada garbitu eta leihoak ere aldatu dituzte azken hilabeteotan.

Ariznoa plazak, esan bezala, itxura berria dauka. Arbola bakarra jarri dute eta bederatzi farola eta lau eserleku jarri dituzte eraikinaren aurreko plazatxoan.

Proiektuaren aurrekontua 281.000 euro ingurukoa izan da.



Epaitegiko eraikinak zein Ariznoa plazak itxura berria daukate.



## Udal Euskaltegikoak sagardotegira joan ziren, Tolosara

Udal Euskaltegiko ikasle talde bat eta hainbat irakasle Tolosako Isastegi sagardotegian izan ziren aurreko egubakoitzean, martxoaren 11n. Hogeita hamar laguneko taldea joan zen Tolosara, Aritz eta Miren trikitilariak artean. Giroa ez zuten faltan izango... Ederto afaltzeaz gain, euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango zuten kupela artean... Txoooooot!!!

## LABUR

### Internet eta posta elektronikoko ikastaroak ZGunean, Aste Santuko oporren ostean

Aste Santuko oporrak direla eta, Irizar jauregiko KZgunea itxita izango da martxoaren 21etik 29ra. Bestalde Internet eta posta elektronikoko ikastaroak izango dira apirilean. Argibideak 943 76 73 24 telefono zenbakian.

### Pazkoetarako kartel lehiaketarako lanak apirilaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira

Udalak kartel lehiaketa deitu du Mendekoste jaietarako. Kartelek ondorengo testua eraman beharko dute nahitaez: *Pentekoste jaiak 2005 Bergara*. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Lanak entregatzeko epea apirilaren 6ra arte izango da zabalik.

### Uztaileko udalekuetan lan egiteko begiraleak behar ditu Xipizaro ludotekak

Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Uztaileko udaleku irekietan begirale lanetan jarduteko interesa dutenek, apirilaren 11tik 22ra dute izena emateko aukera. Ordutegia honako hau da: astelehenean egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara. Argibideak Xipizaron, 943 76 23 76 telefono zenbakian.

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES

BERGARA  
607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**SANTOS**



**Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

**FRONTOI**



**TABERNA**

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**TOKI-ONA**

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txixizotzak  
Kazolatzak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53



## ELKARRIZKETA

PEPA BOJO/PSIKOLOGOA ETA SEXOLOGOA

*“Autoestimua ikastaroan botere pertsonala lantzen saiatuko gara”*

EDU MENDIBIL

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, emakumeei zuzendutako autoestimua ikastaroa emango du Pepa Bojok Bergaran, apirilaren 6tik maiatzaren 25era bitartean. Izenematea zabalik dago martxoaren 23ra arte udaltxean, 943 77 91 25 telefonoan.

**Ikastaroa emakumeei bakarrik zuzendutakoa da.**

Bai, baina ez autoestima arazoak emakumeon esklusiba direlako. Hala ere, emakumeon ikuspuntutik aztertu nahi genuen autoestimua arazoa, eta gaiari sakonean heltzeko hobe da ikastaroko partaideak sexu berekoak izatea. Esperientziak azaltzea eta konpartitzea errazagoa gertatzen da sexu berekoekin.

**Zein da ikastaroaren helburua?**

Norberaren buruarekin ondo egotea funtsezkoa da. Hori lortzeko jarraibideak ematen saiatuko gara. Lehenbizi gure burua nola tratatzen dugun moduz jabetu behar dugu, horren gaineko hausnarketa eginez. Zentzu horretan, alboko esperientziak baliagarriak izango dira ikastaroan, gauzak beste modu baten egin daitezkeela ikusteko. Entzuten jakitea oso inportantea da, gure kalterako izan daitezkeen gauzak zuzendu ahal izateko. Zortzi saio egingo ditugu ikastaroan, eguaztenetan 15:00etatik 17:00etara, eta parte hartzea bultzatuko dugu saioetan. Giro positiboa lortzen ahaleginduko gara. Botere pertsonala garatzen saiatu behar dugu, nor bere buruaren jabe izateko. Besteekin ondo egoteko, lehenbizi gure buruarekin egon behar dugu ondo.

**Autoestimua berez izaten den gauza bat da, ala landu egin daiteke?**

Hezkuntzak determinatzen du autoestimua, %100ean esango nuke. Jaiotzerakoan gustura, ondo gaude gure buruarekin,



*“Besteekin ondo egoteko, lehenbizi gure buruarekin egon behar dugu ondo”*

autoestimua berez dator; hortik aurrera hezkuntza funtsezkoa da autoestimua maila zehazteko: zelan tratatzen zaituzte zure ingurukoek, zelan portatzen diren haiek... Azken baten, denak zerkusia dauka jasotzen dugun hezkuntzarekin. Lehen komentatu dizudan moduan, guztiok daukagu arazoak autoestimuaarekin, baina gizarte mailan emakumeok hezkuntza matxistaren ondorioak nabarmen jaso ditugu.

**Eta zelan lantzen da autoestimua?**

Norberak zaindu behar du bere burua, hainbat gauzatarako denbora emanez, beharrak azter-

*“Hezkuntza determinatzen du autoestimua, %100ean esango nuke”*

tuz eta dagokienei garrantzia emanez, ezetz esaten... Azken baten, askotan, besteengan gehiago pentsatzen dugu gure buruarekin baino, eta zenbaitetan kaltegarria izan daiteke hori.

**Iaz ere ikastaro bera eman zenuen Bergaran. Zein adineko emakumeak izaten dira nagusi?**

Joan zen urtean bi talde sortu genituen, bata goizez eta beste arratsalde. Goizetan jende gazteagoa zebilen iaz. Hala ere, adin askotako jendea etortzen da. Belaunaldi ezberdineko jendea elkartzeko aberasgarria da denondako.

## LABUR

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu zuen Udalak otsailaren 24an. Martxoaren 26ra arte errolda horren aurkako errekursoak aurkezteko epea zabalik dago. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31n itxiko da. Hortik aurrera errekararekin eskatuko dela aditzera eman du Udalak.

**Aste Santuko oporrak direla eta, erabilitako olioia bihar, zapatua, batuko dute**

Etxetan erabilitako olioia eta hondakin arriskutsuen bilketa egingo dute bihar, zapatua, ohiko puntu berde mugikorretan.

Martxoan, hilaren 26an egitekoa zen aipatutako bilketa, baina Aste Santuko oporrak direla eta, bihar, martxoaren 19an, egingo dute.

**Miguel Altunako ikasleak, Lleidako ferian**

Miguel Altuna ikastetxeko administraritzako talde bat Lleidan izan zen aurreko astean, simulatutako enpresen ferian. Martxoaren 9tik 11ra bitartean Bergarako 19 ikasle eta hiru irakasle izan ziren Lleidan. Aurreko ikasturtean garbitegi enpresa birtual bat sortu zuten Miguel Altunan. Ikasleek birtualki egiten dituzte enpresarekin lotutako eragiketak, sarean dauden gainerako enpresa birtualekin. Estatuan horrelako 120 enpresa inguru daude eta Lleidan esperientziak trukatzeke aukera izan zuten Miguel Altunako ikasleek.

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Jose M. Martín**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Irrintzi kafetegia**

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA



MINGAINARITIRAKA



Jon Ander  
Egaña

ETXEBERRIA ERLOJU DENDAKOA

Hamasei bat urte darama Jon Anderrek familiaren erloju dendan lanean. Denda, baina, askoz lehenagokoa da; 74 urte ditu dagoeneko. Erlojuak konpontzen ditu, baina, batez ere, bitxiak konpontzen jarduten du eta horixe du gustukoan.

Erloju analogikoa ala digitala nahiago duzu?

Analogikoa, noski. Digitalak oso gutxi saltzen ditugu; batez ere, umeek erosten dituzte, kronometroa dutelako.

Puntuala izango zara, ezta?

Bai, saiatzen naiz; gure koadrilako asko baino puntualagoa banaiz, behintzat.

Etxean zenbat erloju daukazu?

Gutxi; gutxira, lau dauzkat.

Denboraren mendean bizi garela iruditzen zaizu?

Bai, bai; erlojua konpontzen lagatzen duenean, jendea ez da eroso sentitzen, erlojuaren falta handia sumatzen du.

Erlojuak konpontzeko ikusmen ona izango duzu, ezta?

Oraingo, bai. Dena dela, bitxiak konpontzen ditut, batez ere.

Zure lanean zer gustatzen zaizu gehien?

Bitxiak konpontzea.

Eta gutxien?

Bezeroekin egotea.

Bitxiak konpontzeaz gain, diseinatu ere egiten dituzu?

Diseinatu izan ditut, baina orain, enkarguz bakarrik egiten ditut; denbora luzea behar da horretarako.

Asteburu baterako plan ideala?

Emaztearekin eta semeekin mendira edo hondartzara joatea; Errioxan etxea daukagu, eta hara joatea ere asko gustatzen zait.

Egunkarian zer da lehenengo irakurtzen duzuna?

Kirolen saila.

Bergaran zer falta dugu?

Orokorrean, herrian hobekuntzak egin beharra dagoela iruditzen zait; adibidez, zinema eta kultura etxea hobetu, Elgetako kafe antzokiaren antzerako bat ere oso ondo egongo litzateke...

Eta Bergarako gauza onena?

Herri lasaia eta txikia dela.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Motorrean ibiltzea, baina orain, umeekin, denborarik ez daukat.

Bukatzeke, amets bat?

Euskal Herriak independentzia lortzea.

AINTZANE IRIZAR

KANPOTARRAK BERGARAN

NATALIA NAZARIAN

27 URTE / UKRAINARRA / ORAIN DELA HIRU URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Denerako jendea dago Bergaran, baina askok gaizki begiratzen digute atzeritarroi”

AINTZANE IRIZAR

Senarrarekin eta sei urteko semearekin etorri zen Natalia Bergarara. “Bizitza berri bati ekitea zen gure asmoa”, gogoratzen du Nataliak. Etortzearen arrazoia, baina, ez zen ekonomikoa izan, berak azaldu digunez: “Senarra eta biok banandu egin ginen Ukrainan; denbora batera, berriro elkarrekin hasi ginen, baina bizitza berri bat hasi nahi genuen, familia, lagunak eta gure herria alde batera lagata”.

Horrela, Bergarara etorri ziren; Nataliaren amaginarreba hemen bizi zen, eta aukeratu zuten gure herria.

Denbora batera, baina, banandu egin ziren berriro eta gaur egun, Vagan semearekin bizi da Natalia.

LAN ETA LAN

Ukrainan bizi zenean, ile apaintzaile lan egiten zuen Nataliak. Hemen, baina, bestelako lanbideetan ibili da; hasierako bi urteetan, harategi baten jardun zuen lanean. Orain, berriz, gozoki dendan baten dihardu.

Nataliak esan digunez, euskaldunok ez diogu oso harrera ona egin: “Denerako jendea dago, baina askok gaizki begiratzen gaituzte”, diosku. “Euskaldunoi lana kentzera etorri garela entzun behar izan dut behin baino gehiagotan; ez dut uste hori horrela denik; izan ere, atzeritarrok euskaldunok nahi ez dituzuen lanak egiten ditugu”, azaldu digu.

Kontu gogorrak ere kontatu dizkigu: “Behin, gure seme-ari harrika egin zioten herriko mutiko batzuek eta bere herrira alde egiteko oihukatzen zioten; benetan, ikaragarria izan zen hura”.

ALDAKETA HANDIA

Bergara herria asko gustatzen zaio Nataliari: “Oso herri polita da; hasieran, iritsi ginenean, harrituta geratu nintzen zelako

“Euskaldunok nahi ez dituzuen lanak egiten ditugu guk; ez dizuegu ezer kentzen”

herri txikia zen; Ukrainan, ni herri txiki baten bizi nintzen, baina han herri txikiak, Donostiaren antzerakoak dira”. Baina ez da hori aldaketa bakarra: “Dena da ezberdina: jendea, jaiak, Gabonak, herriak, paisaia...”

Oraintxe herrira egokitzen hasi direla kontatu digu. Semea ikastolan dabil eta oso ondo konpontzen da ikaskideekin.

Dena dela, lagunak ez duela egin azaldu digu Nataliak: “Oso zaila da hemen lagunak egitea; jendeak ez du ezer jakin nahi atzeritarrekin. Gainera, ordu asko egiten dut lanean, ez dut irteteko denbora luzerik”.

Gainera, ez du lagunak egiteko interes handirik; zera esan

digu: “Nik lasai bizi nahi dut; ez dut inor molestatu nahi eta ez dut nahi inork ni molestatzerik ere; hortaz, nik neure bizimodua egiten dut eta kito”.

Etorkizunaren gainean, berriz, honakoa adierazi digu: “Oraingo, hemen bizi izaten jarraitzeko asmoa dut; gainera, semea gustura dago eta nik, berriz, ez nuke batera erraza izango orain Ukrainan lana topatzea”. Momentua bizi izateari ematen dio garrantzia Nataliak.

Dena dela, Ukrainara bisitara joateko desiratzen dago; izan ere, hiru urte hauetan ez ditu gurasoak ikusi.



ZUHAIZTI  
taberna

Eguneko menuak!

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22



FUTBOLA

# Gazte mailako taldeen partidua zapatu arratsaldean Ipintzan

Lehen gazte mailako taldeak lider jarraitzen du, liga amaitzeko bederatzi jardunaldi falta direnean

EDU MENDIBIL

Bergara KEko gazte mailako bi taldeek etxean jokatu dute zapatuan: bigarren gazte mailakoak Antzuolaren aurka jokatu du, 16:00etan; jarraian, igoyeraren bila dabilen lehen gazte mailakoak Zestoa izango du bisitari, 18:15ean.

Lehen gazte mailako taldeak Kostkas taldearen aurka bina berdindu zuen Ipintzan aurreko jardunaldian. Hala ere, David Lopez de Abetxukok eta Jose Ramon Beristainek zuzentzen duten taldeak sendo jarraitzen du iguera lortzeko bidean: bergararrak sailkapeneko lehen postuan ditugu. Jokatuak 25 partiduetatik bakarria galdu dute. Liga amaitzeko bederatzi jardunaldi falta direnean, 10 puntuko aldea ateratzen diote bigarren dagoen Orioko taldeari (54 puntu). Kostkas hirugarren dago, 50 punturekin.

Bestalde, bigarren gazte mailako taldeak Antzuolaren aurka derbia izango du zapatuan. Igoera fasean ari dira bi taldeak. Antzuolarrak liderrak dira eta



Infantil mailako taldeak Kostkas taldearen aurka jokatu du domeka goizean.

igoera fasean bost partidu irabazi eta bestea berdindu egin dute. Juan Carlos Gomez de Seguraren taldeak, berriz, bi irabazi, bi galdu eta bestea berdindu egin du. Joan den astean Beasainen aurka galdu zuen etxean Bergarak, 1-2.

Domekan, berriz, partidu bakarria izango da Ipintzan: infantil mailako taldeak Kostkas hartuko du, 11:30ean.

**OSASUNA-TOTTENHAM AGORROSINEN**  
Bestalde, Realak antolatzen duen

gazte mailako txapelketaren barruan, Osasunak eta Tottenhamek jokatu dute Agorrosin hurrengo zapatuan, hilaren 26an, arratsaldeko 17:00etan. Gazte promesak ikusteko aukera ezin hobea.

IGERIKETA

## Gutxituei zuzendutako igeriketa egokitua

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da. Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldean. Argibideak: 943 77 91 67.

IKASTAROA

## Dardo txapelketa gaur gauean Arrano tabernan


Gaur, egubakoitza, dardo txapelketa jokatu da Arrano tabernan, 22:00etan, Lamek antolatuta. Izenemateak hiru euro balio du, irabazleak snowboard taula bat eskuratuko du. Izenematea txapelketa hasi aurretik egin ahal izango da.

IGERILEKUA

## Domekan zabalduko dute berriz igerilekua

Astebetetz itxita egon ondoren, domekan, zabalduko dute berriz Agorrosingo igerilekua. Orduetgia honako hau da: aste barruan 07:00etatik 21:00ak arte eta zapatuetan eta jaiegunetan 09:00etatik 19:00etara.

FOTOKIROLA



## Pilota jaialdia gaur Udal Pilotalekuan

Gaur, egubakoitza, pilota jaialdia izango da Bergaran, 22:30ean. Lehenbiziko partiduan, Berraondo antzuolarra (irudian) eta Galartza VI.a aurrez aurre izango dira, buruz buruko txapelketaren aurre-kanporaketan; ondoren, Eugik eta Eulatek Capellan eta Elkororen aurka jokatu dute. Sarrerak 10 eurotan salgai izango dira. ETBK zuzenean eskainiko du jaialdia.


# Iker Azagirre pilotaria Euskal Ligako txapelaldun izan da, nagusien mailan

E.M.

Iker Azagirre bergarar pilotariak Euskal Ligako finala irabazi zuen Larrabetzun. Nagusien mailan, Oinatz Gonzalez andoaindarrari irabazi zion Azagirrek, 22-5eko emaitzarekin.

Joan den urtean 22 urtetik azpiko mailan lortu zuen txapela Iker Azagirrek. Orain 20 urte ditu, baina nagusien mailan lehiatu da aurtengo ekitaldian. Esan bezala, uste baino errazago lortu zuen txapela martxoaren 4an Larrabetzun jokatuak finalen: 22-5 nagusitu zitzaion Oinatz Gonzalezi. Azagirrek zera adierazi digu: "Partidu azkarra izan zen, eta uste baino arazo gutxiago izan nuen partidua irabazteko. Gauzak ondo atera zitzaizkidan hasieratik, eta erosu jokatu nuen".

Aurretik ere, txapelketako lehen fasean, elkarren aurka jokatu zuten Gonzalezek eta Azagirrek: orduan andoaindarrak irabazi zuen, 22-13. Gonzalezek Añorgako taldea ordezkatu du txapelketan, eta Azagirre, berriz,



Iker Azagirrek Elgetako lau t'erdiko txapelketan hartuko du parte.

Elgetako Ozkarbi elkartean ari da azken urteotan.

**ELGETAN, LAU T'ERDIAN**

Hain zuzen ere, Ozkarbi antolatzen duen lau t'erdiko txapelketa da Azagirreren helburuetako bat: "Ea txapelketa

txukuna egiterik daukadan. Ilusioz nago Elgetako txapelketari begira".

Malazetxeberriarekin bikoitza osatuz, Azagirrek Legorburu eta Zubiagaren aurka galdu zuen aurreko egunean, Zaramagako txapelketan.



ESKUBALOIA

# Senior mailako taldeak Ereintza liderra bisitari izango du zapatuan

Kadete mailako mutilek Hondarribiaren aurka jokatuko dute domeka eguerdian

E.M.

Euskadiko Txapelketan diharduen senior mailako mutilen taldeak liderraren bisita izango du bihar, zapatua, Labegarietako kiroldegian. Saikapeneko azken postuan dira bergararrak eta Ereintza liderrak hiru partidu baino ez ditu galdu orain arte.

Lander Juaristik zuzendutako taldeak Ereintza liderra hartuko du bihar, zapatua, 16:45ean. Dagoeneko bergararrek ez daukate mailari eusteko aukerarik; zapatuan Egiaren aurka galdu zuten, 32-25. Bi goleko abantaila alde izan zuen Bergarak lehen zatian, baina azkenean donostiarrak nagusitu ziren.

Gauzak horrela, liga amaitzeko bost jardunaldi falta direnean, Bergara saikapeneko azken tokian dago, 3 punturekin. Jokatuako 21 partiduetan bitan baino ez dute lortu puntuatzea: partidu bakarra irabazi eta beste bat berdindu dute. Bergararen aurretik Portugalete (9 puntu), Egia (12 puntu) eta El Pilar (14) taldeak dira saikapenean.

Zapatuan ez dute aurkari erraza izango, Ereintza saikapeneko liderra da-eta.



ASTELEHENEN GOIENKARIA

Euskadiko Ligako senior mailako taldeak partidu bakarra irabazi du orain arte.

*Kadete mailako taldearen partidu garrantzitsua Hondarribiaren aurka*

### BERGARA-HONDARRIBIA DOMEKAN

Kadete mailako mutilen taldeak Hondarribiaren aurka jokatuko du domekan, 10:45ean. Bi taldeak saikapeneko goialdean dira. Domekan, Bidasoaren aurka galdu zuen Bergarak Iruen, 28-25.

Senior mailako bigarren taldeak Usurbil hartuko du domekan, 12:15ean, Kopako Txapelketan.

FOTOKIROLA



### Ariznoakoak, onenak Arrasaten

Ariznoako gimnastek parte hartu zuten Gipuzkoako Txapelketarako sailkatze proban. Alebin mailan, esku libreen ariketan, Cristina Etxeberria lehena izan zen eta Cristina Gonzalez laugarren sailkatu zen. Taldeka, esku libreen eta pilota ariketan, lehenak izan genituen Etxeberria, Ainara Gonzalez, Olatz Ugalde, Mainer Cabo, Uxue Lazkano, Irene Aguayo eta Judith Dovao.

MENDIA

### Herriko mendizale beteteranoak Etxalarrera eta Iruritarra joango dira domekan

Pol-Pol Mendizale Taldeko eta Gorla Alpinoko beteteranoek denboraldiko bigarren irteera iragarri dute domekarako, hilak 20. Etxalarrera eta Irurita joango dira goizetik.

Argibideak Pol-Pol Mendizale Taldeko bulegoan, 943 76 48 51 telefono zenbakian.

SASKIBALOIA

### Bergara KEko saskibaloit taldeek etxetik kanpo jokatu dute oraingo aste bukaeran

Bergarako taldeek ez dute etxean partidurik izango asteburuan. Azken jardunaldian, senior mailako mutilek Eibarko Ametsari irabazi zioten (81-51); junior mailako taldeak La Salleren aurka galdu zuen (60-62); azkenik, kadete mailan, mutilek Arrasateren aurka galdu zuten (43-49) eta neskek Lasalleri irabazi zioten (28-51).

ESKIA

### Aste Santuan Alpeetara eskiatzera joateko irteera, Pol-Pol elkartearen eskutik

Pol-Pol Mendizale Taldeko eski sailak Aste Santuan Alpeetara joateko irteera iragarri du. Hain zuzen ere, Motaret-era (Hiru Haranak) joango dira Pol-Poleko kideak, martxoaren 25etik apirilaren 2ra bitartean. Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan, aste barruan, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 zenbakian.

ATLETISMOA

### Iratxe Aranburuk Txingudi Korrika lasterketa irabazi zuen, hirugarren aldiz

Iratxe Aranburu Udaleko Kirol Zerbitzuko teknikariak Txingudi Korrika lasterketa irabazi zuen domekan. Zarautzarrak 46 minutu eta 15 segundo behar izan zituen Hendaia eta Hondarribia arteko ibilbidea egiteko. 1999an eta 2001ean ere irabazlea izan zen.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

11:30: PDS-Belengua..... KMP  
12:30: KMP-Niu Tim..... Belengua  
18:00: Cosa Nostra-Irubide.... Pagomen.  
19:00: Bayer-Pagomendi..... Fac  
20:00: Canalejas-Fac..... Bayer

12:30: A Ze Flaxa-Errotagain... Pirulota.  
16:00: SDTNT-Kalaveras..... Pagome.  
17:00: Fit Autom.-Pagomendi... SDTNT  
18:00: All Blacks-Fac..... Fit Auto.

#### DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Egurre-Txipiron..... Canalejas  
10:30: Komando-Canalejas.... Egurre  
11:30: Komando-Pirulotarrak... Errotaga.

#### DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Fit Automocion-Irubide... Belengua  
17:00: Kalaveras-Belengua.... Irubide  
18:00: KMP-SDTNT..... All Blacks  
19:00: All Blacks-Ganbara.... Cosa Nos.  
20:00: Agirrebeña-Cosa Nostra . Ganbara

# Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13



- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

**margolan**  
m a r g o a k

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777




# UGARTE

## AROZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean



- Horma armairuak



- Altzariak

- Leihoak

- Ateak




**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



Aro berria,  
erakusketa berria.



BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10  
BERGARA  
943 76 03 30



## ELKARRIZKETA

KOGOLLO PARTY KREW/DISKO JARTZAILEAK

# “Bergara eta inguruko disko jartzaileok taldea osatu dugu”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Izen bitxi honen atzean bost laguneko taldea izkutatzen da. Disko jartzaileak dira eurak, baina musika artearen alor ezberdinekin uztartzen dute: dantza, ikus-entzunezkoak, dekorazioa... Egitasmoaren berri eman digute taldeko kideek.

### Zer da Kogollo party Krew?

Lagun talde bat gara. Disko jartzaileak, artistak hainbat gauzatan. Egutero lokalean elkartzen gara eta pentsatu genuen zerbait egitea herriko disko jartzaileak ezagutzera emateko.

### Zeintzuek osatzen duzue?

Lokalean elkartzen garenak bost lagun gara: Asier eta Eneko Baltzategi, Mikel Lopez, Angel Moreno eta Gorka San Juan. Baina Bergarako eta inguruko disko jartzaileen bilgune izan nahi du taldeak. Honetaz gain, baditugu lagunak irudia, diseinua zein dantza lantzen dituztenak, eta eurekin egiten ditugu hainbat muntaia. Taldea zabala da. Gainera, norbaitek ekarpenik egin nahiko balu gugana jo besterik ez du. Zabalotegiko dorrean batzen gara, edo mezu bat ere bidal dezakete honako helbidera: kogollopartykrew@yahoo.es.

### Musika da zuek elkartzeko arrazoia. Zein musika mota?

Batez ere musika elektronikoa lantzen dugu, dantzarako musika. Horren inguruan dantza bera, ikus-entzunezkoak, dekorazioa eta beste zenbait arte esparru.

### Zein dira zuen helburuak?

Jaialdiak antolatzea eta gauzei bizitasun apur bat ematea. Jamen egin genuen jaialdia otsailan, eta udaberriaren Arrasateko 3'60 aretoan egitekoak gara beste bat. Bergarako gaztetxean ere hainbat talderekin zerbait gertatzekotan gara. Jameko jaialdia arrakastatsua izan zen: disko jartzaileok jardun genuen, argiekin hainbat jolas egin genituen, dekorazio berezia prestatu genuen okasiorako eta baita bideo bat ere.



KOGOLLO PARTY KREW

*“Musika elektronikoa lantzen dugu beste hainbat arte alorrekin nahastuta”*

### Nola uztartzen dituzue artearen horrenbeste alor?

Gure lana ez da profesionala, lagun artean egindakoa baizik. Beraz, bideoak egiten dituen hasiberria da, badugu beste lagun eskulturagile eta bere lanak ikusgai jartzen ditu gure jaietan...

*“Gure musika diskotekekin lotzen da, baina kalean eta tabernetan gehiago entzuten da orain”*

### Bergaran nahiko musika mugimendu dago?

Guk egiten dugun musika mota diskotekei lotuta dago, baina kalean eta tabernetan gero eta gehiago entzuten da. Oro har, musika mugimendu handia egon da Bergaran beti.

## Amparanoiak disko berria aurkeztuko du gaur Jamen

I.A.

Bembe Tour 2005 kontzertu bira egiten dihardu Amparanoia taldeak, eta gaur, egubakoitza, Jam aretoan izango da. *Rebeldia con alegria* diskoaren aurkezpena egingo dute Amparano Sanchezek eta lagunek.

Amparano Sanchez abeslariaren proiektua da Amparanoia; munduko musiketan barrena sartzeko aukera ematen duena.

Taldearen izen bitxi hori ere liderraren izenetik eta haren paranoiatik dator. Izan ere, musika da Ampararen paranoia.

*Rebeldia con alegria* diskoa aurkeztera dator Amparanoia Jam aretora. Reggaeak, folk mes-tizoak eta erritmo melodikoak bat egiten dute disko honetan.

### OIHARTZUN HANDIA

Espainiatik kanpora ere oihartzun handiko taldea da Amparano



BERRIGARA

Amparano Sanchez abeslaria.

Sanchezena. Bembe Tour 2005 biran Europako hainbat txoko bisitatu ditu. Gainera urtarrilean BBC World Music Award sarietan Europako talderik onena izendatu zuten.

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak bertan eskuratu daitezke 16 euroren truke.

## KULTURAPILULAK

### Dani Laskurainen artelanak ikusgai Iruñeko Reciclarte galerian martxoaren 30era arte

Dani Laskurain bergararrak hainbat lan ipini ditu ikusgai Iruñeko Reciclarte galerian (Bernardino Tirapu 5). 22 koadro, 21 marrazki eta egurrezko zortzi maketa daude bertan. Erakusketa martxoaren 30era bitartean egongo da zabalik, astelehenetik zapatara 09:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 22:00etara.

### Jim TNT bakarlariaren eta beste talde baten kontzertua bihar gauean gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ak aldera. Jim TNT Arrasateko bakarlariak jardungo du eta harekin batera beste talde bat ere izango da. Jim TNTk rock klasikoa egiten du, lasaia; eta gitarra eta harmonikarekin irtengo da gaztetxeko taula gainera.

### Udaberriko jaiasteburuan Nahikarin eta The Hound Dogs taldea gaur Pol-Polen

Nahikari tabernak Udaberriko jaiasteburuan antolatu du. Gaur, egubakoitza, Stukas taldeak jardungo du 23:30etik aurrera. Bihar, berriz, 22:00etan blues musika entzuteko aukera izango da eta ondoren, Azkaiter Pelox bakarlariak saioa egingo du. Bestalde, Pol-Pol tabernan kontzertua dago iragarrita gaurko. The Hound Dogs taldeak Elvisen bertsioak egingo ditu 23:00etan hasita.

## FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:  
San Martin Osasundegia  
Ramon M<sup>a</sup> Lili 2.

943 76 59 39

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA

# GABILONDO

INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,  
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854  
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67





# HARMAILATIK

Debagoieneko kirola Goiena Telebistan

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

**Astelehenetan**

21:00ean eta 22:00ean GOITBn

**Aurkezlea: Julen Iriondo**



**BOLUNTARIOAK/** 'Hartu lekukoa-Izan boluntario' kanpaina abian da

# Adineko 500 boluntario behar dira Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketarako

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketa Donostian izango da abuztuaren 22tik irailaren 3ra bitartean. protagonista bereziak izango dira bertan: 65 urtetik gorako 500 gipuzkoarrek hartuko dute parte kirol ekintza honetan boluntario modura.**

Hartu lekukoa-Izan boluntario lelopean kanpaina ipini du abian Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kanpaina honen helburua da ahalik eta boluntario gehien lortzea Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketarako.

Horretarako, Foru Aldundiko Gizarte Politikako ordezkariak txapelketaren antolatzaileekin batera, Gipuzkoako gizarte zentro guztietara joango dira apirilaren 4tik 15era bitartean. Bisita hauek bazkide guztiei ekimenaren berri emateaz gain, parte hartzera animatu nahi dituzte. San Joxepe elkartera ere joango dira azalpenak ematera.

Ondoren, boluntario modura jardun nahi dutenek, izen-ema-


te orria bete eta San Joxepen bertan ipiniko duten kutxa berezi batean sartu beharko dute apirilaren 30a baino lehen. Izena ematen duten adinekoek eskutitz bana jasoko dute, txapelketan izango duten partaidetzaren xehetasun guztiekin.

## EGIN BEHARREKO LANAK

Txapelketa abuztuaren 22tik irailaren 3ra bitartean jokatu da. Egun bakoitzean 50 pertsona inguruk jardungo dute lanean, eskualdeka antolatuta.

Besteak beste, ondoko jardueretan hartuko dute parte: atleta guztientzat materiala eta dokumentazioa prestatzen; atsedenean laguntzen; txapelketaren denda ofizialean laguntzen, dominak prestatzen... Laguntza talde batek lagunduko die adinekoei eta boluntario modura parte hartuko duten gazteak ere eurekin izango dira.

Foru Aldundiaren ustez, txapelketa aukera ona da adinekoen partaidetza sustatzeko. Txapelketak errepikatu ezingo duten esperientzia barrutik bizitzeko aukera eskainiko die.



Abuztuaren 22tik irailaren 3ra bitartean jokatu da Donostian Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketa.

BERRIGARA

## Elkartasun saria Tomasa Zabaleta zenaren omenez

I.A.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adineko Pertsonen Kontseiluak sariketa baterako deia egin du.

Sariketak Tomasa Zabaleta zenaren izena du. Adineko jendearen alde eta eurekin lan asko egin zuen bergarar honek.

Deialdiaren xedea da adineko pertsonen proiektu eta programetan gehiago parte hartzeke ekimenak aintzat hartzea.


Sariketara aurkez daitezke Gipuzkoako erretiratuen elkar-teak eta erretiratuen etxe baten funtzionamenduaren ardura

duten adineko pertsonak. Erretiratu etxe bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu ahal izango da.

## EPEA

Sariketara aurkeztu nahi duten elkarteek 2005eko martxoaren 31 baino lehen Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteari jakinarazi beharko dio. Bide batez, egitasmoaren aurrerapen bat ere aurkeztuko dute. Ondoren, proiektu hori abian ipiniko dute urriaren 31rako.

Proiektu onena gertatzen duen erakundeak 6.000 euro eta oroigarria jasoko ditu.




Tomasa Zabaleta zena San Joxepeko presidentea izan zen hainbat urtez.

BERRIGARA

## LABUR

### Bilbora irteera erretiratuendako martxoaren 31n

San Joxepe elkarteak irteera antolatu dute martxoaren 31rako. Bilbora egingo dute irteera erretiratuek egun horretan. 09:00etan autobus geltoki berritik irten eta Bilbora iritsita Itsas Museoa bisita gidatua izango dute. Ondoren, Enekurin egingo dute bazkaria. Arratsaldean, berriz, eurek nahi dutena egiteko asti libre izango dute eta Artxandan ibiliko dira. Irteerara joan nahi dutenek hila-ren 23a baino lehen eman beharko dute izena.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## ezpeleta

Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09



**ARRI**  
Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

## ARANE KRISTALDEGIA

Artekaleara, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da Parteittin dagoen Pizkunde garaiko ermita honen izena?

GALDEDEBALDE

- |  |  |  |
|--|--|--|
| <p><b>1.</b><br/>Non hil zen Domingo Martinez Irala bergarar ospetsua?</p> <p>A/ Argentinan.<br/>B/ Paraguain.<br/>C/ Mexikon.</p> | <p><b>2.</b><br/>Nor da Amparanoia musika taldeko abeslaria?</p> <p>A/ Ana Luanco.<br/>B/ Noa Lampar.<br/>C/ Amparo Sanchez.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein taldean dabil Iker Azagirre bergarar pilotaria?</p> <p>A/ Ozkarbi.<br/>B/ Añorga.<br/>C/ Zaramaga.</p> |
|--|--|--|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LEIRE UGALDErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Leire! Galderen erantzunak hauek ziren: Bonofotoa: Ezkerrekoa, Ibarra kalean; eskumakoa, udaletxean. Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....


TELEFONOA .....

Pantene xanpua  
300 ml

3,75 €

624 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Iralaren omenezko monolitoa.

*Bergara Kapitaina ezizenez ezaguna, Paraguaiako gobernadore izan zen hamabost urtez.*

**Domingo Martinez Irala**  
KOLDO PEREIRA

Irala esploratzaile eta konkistatzaile Bergaran jaio zen, 1509an, eta Asuncionen, Paraguain hil zen, 1556an, bat-batean heldu zitzaion sukarraldi baten ondorioz. Rio de la Platako gobernadorea izan zen, eta Amerikako lehen konkistatzaileen arteko pertsonaiarik nabarmenetakoa. Bere irmotasun eta adorea esker, askoz ere botere eta prestakuntza handiagoko buruzagi konkistatzaile batzuk gainditzea lortu zuen.

Familia dirudunekoa zen. 1534an Ameriketara joan zen Pedro Mendozarekin batera. 1536an espedizioa antolatu zuen Rio de la Plata. Iralak Buenos Aires eta Asuncion sortzen lagundu zuen, Parana ibaia esploratu zuen, eta Rio de la Platako gobernadore nagusi izendatu zuten birritan, herritarrek zioten mirespen handiaren ondorioz. Urte batzuk geroago erregeak indiar herrien erabakia berretsi zuen, 1552ko azaroaren 4an emandako zedularen bidez. Lan ikaragarria egin zuen Iralak.

Paraguaiako gobernadore izan zen hamabost urtez. *Bergara Kapitaina* ezizenez ezagutzen zuten.

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7-  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**EDEL**  
TAPIZ DENDA

*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

# Ikasleak Berrio-Otxoa eskolan

**S**an Joseren irudiaren 75. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi egon dira asteotan. Oraingo asteburuan bukatuko da Olanan etxean jarri duten maristen gaineko erakusketa.

Herritar asko pasatu zen Berrio-Otxoa umeen eskolatik. Maristek ematen zituzten eskolak hantxe. Gaur egun Eguzki Auzorako bidegurutzea dagoen tokian gutxi gorabehera zegoen Berrio-Otxoa maristen eskola.

Ikasteixe horretako ikasle talde baten argazkia ekarri nahi izan dugu oraingo asteen. 1950. hamarkadakoa da argazkia. Horra hor argazkiak azaltzen direnak.

Behean, ezkerretik hasita: Jose Ignacio Bareño, Isidro Zabaleta, Juan Kruz Gezalaga, Jose Zabaleta, Jose Jabier San Sebastian, Migel Mari Lete eta Pello Lete.

Bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Juanito Lizundia, Luis Mari Jauregi, Joakin Larrañaga, Antonio Olaortua eta Andres Toledo.

Hirugarren ilaran: Jose Mari Garitano, Felix Lizundia, Jesus Jauregi, Santi Aristi, Jabier Arregi, Aniceto Aristi, Luis Pidain eta Pedro Eguren.

Goian, ezkerretik eskumara: Remigio Laskurain, Carlos Gartzia, Jose Mari Gabilondo, Patxi Irizar, Jose Luis Kortabarria, Tomas Larrea, Ignacio Larrea eta Juan Kortabarria.

Argazkia: Jose Jabier San Sebastian



### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

# AZPEITXI

*Jatetxea*

Aranerrek 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

# ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



## Silvestre Muñoz, s.l. pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrialak  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 18a / 237. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Udalbatzarrak 2.460.054 euroko aurrekontua onartu du 2005erako

AINTZANE IRIZAR

Martxoko osoko bilkuran, hilaren 11n, aurtengo aurrekontuak onartu zituen udalbatzarrak: 2.460.054 euro, guztira. Horietatik, inbertsioetara bideratuko dituzte 598.171 euro. Ibarre auzoaren urbanizazio lanetan inbertituko dute zati handiena.

Aurreko asteko egubakoitzean onartu zituzten aurtengo aurrekontuak; esan bezala, 2.460.054 euro, guztira. Iazkoarekin alderatuta, zertxobait behera egin du; izan ere, iaz, 2.585.797 euro izan zen aurrekontua.

Aurrekontuaren zatirik handiena, ohikoa den moduan, Etxebizitza eta Hirigintza batzordeak izango du: 783.019 euroko aurrekontua, hain zuzen ere.

### IA LAURDENA INBERTSIOETARAKO

Aurtengo aurrekontua txikixea goa izango den arren, inbertsioetarako portzentaje pixka bat handiagoa bideratuko dute, aurrekontuaren ia laurdena, 598.171 euro, hain justu.

Inbertsioaren zatirik handiena, aurrekontu osoaren kasuan bezala, Etxebizitza eta Hirigintza batzordearendako izango da; 418.737 euroko inbertsioak egingo ditu batzorde horrek.

Aipatzekoa da, bestalde, Nekazaritza batzordeak ere inbertsioen zati handi bat eramango duela aurtengoa, 96.643 euro, hain zuzen ere.



Ibarre auzoa urbanizatzen inbertituko dute diru gehien, 270.371 euro, hain justu.

ARTXIBOA

### Aurrekontuak eta inbertsioak batzordeka

BATZORDEA	AURREKONTUA	INBERTSIOA
Zor publikoa	114.272 €	—
Gobernu organoak	54.104 €	—
Administrazio orokorra	354.065 €	6.740 €
Gizarte Seg. eta Sustapena	262.041 €	300 €
Hezkuntza	80.858 €	18.000 €
Etxebizitza eta Hirigintza	783.019 €	418.737 €
Komunitate Ongizatea	259.021 €	—
Kultura	135.144 €	3.750 €
Gazteria	49.621 €	5.000 €
Kirolak	107.467 €	30.000 €
Liburutegia	19.130 €	7.000 €
Euskara	118.253 €	12.000 €
Nekazaritza	123.053 €	96.643 €

### IBARRE AUZOA URBANIZATZEA

Ibarre auzoa urbanizatzeko lanena izango da inbertsio handiena; 270.371 euro bideratuko dituzte horretara. Bigarren inbertsio handiena Nekazaritza batzordeak egingo du; 96.643 euro erabiliko dituzte Urrutitik Gorrizerako errepidea konpontzen. Hormigoia botako dute.

Beste inbertsio aipagarri batzuk honakoak dira: futbol zelaiko aldagetan 25.000 euro; lokal publikoen azterketa egiteko, 10.000; gaztetearendako, 5.000...

### LABUR

#### Erretiratuen batzar orokorra, apirilaren 2an

Apirilaren 2an, zapatua, egingo dute urteko batzar orokorra Antzuolako Erretiratuen Elkarteak. 18:00etan izango da hori, erretiratuen elkartearen bertan.

Hantxe, aurreko urteko kontuak eta antolatutako ekintzak zela joan diren azalduko dute, eta urte berrirako dituzten asmoen eta helburuen berri ere emango dute.

Bestalde, batzordea berrikotuko dute: idazkaria, bi bokal eta elkarteko presidentea berria aukeratu dute. Apirilaren 2an jakingo dugu zeintzuk osatuko duten batzorde hori.

#### Udaleku irekietarako izena emateko aukera

Aurtengo udarako, ohiko moduan, umeendako udaleku irekiak antolatuko ditu Udalak. Uztailean izango da hori, baina, izena emateko aukera apirilaren 4tik 8ra, hain zuzen ere eman beharko da izena udaletxeko bulegoetan.

Begirale izan nahi dutenek zein udalekuan parte hartu nahi dutenek eman beharko dute izena epe horretan. Horrela, Udaleku arduradunek lehenbailehen jakin nahi dute zenbat umek duten interesatuta udalekuan parte hartzeko.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**AITZ-GARBI**



**taberna  
jatetxea**

**Pintxoak eta  
kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA



*Juan Cruz*

**ARGAZKIAK**

Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak  
Estudioko argazkiak

**BITXITEGIA**

Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA




## ELKARRIZKETA

PATXI IZAGIRRE/PSIKOLOGOA

# “Gure joera da umeak babestea, eta heriotzaren gaia mingarria iruditzen zaigunez, ekidin egiten dugu”

A.I.

A tzo, eguna, heriotzaren gaineko berbaldia egin zuen Patxi Izagirre psikologoak. “Heriotzaren gaia umeekin zela tratatu”, hain zuzen ere, zen berbaldiaren izenburua. Herri Ikastetxeak antolatutako hitzaldi hori eta gurasoei zuzenduta zegoen.



KONTUOLA

**Heriotzaz berba egitea asko kostatzen zaigu, baina, are gehiago, umeekin. Zergatik?**

Gure joera umeenganako izaten da babestearena; heriotzarena hain gai mingarria iruditzen zaigunez, babestu egin behar ditugula. Gertatzen dena da babestu behar horrekin, euren baliabideak atrofiatu egiten ditugula. Umeengan heriotzaren gainean sortzen den jakin-minaren aurrean, askotan, gai hori ekiditen saiatzen gara. Joera horrekin, gure aurreiritzi guztiak umeari transmititzen dizkiogu. Euren galderei erantzun egin behar diegu, zalantza barik.

**Heriotza tren baten ibilbidearekin konparatu izan duzu, ezta?**

Bai, hala da, bakoitzak badu bere geltokia, baina, inork ez daki noiz eta nola iritsiko den geltoki horretara. Bizitzan galera asko izaten ditugu eta heriotza galera

horietako bat da. Galera horiei aurre egiten baldin badiegu, hori umeendako ikasketa polita izango da. Gaur egun, adibidez, guraso asko banandu egiten dira eta hori ere, azken finean, galera bat da. Horrekin ere asko ikasten dute umeek. Gainera, banaketa-

**“Umeari galderak sortzen zaizkionean, erantzun egin behar ditugu galderok, zalantza barik”**

ren eta heriotzaren aurrean fase berdinak ematen dira.

**Zein fase dira horiek?**

Bost fase daude: lehenengoa, *shock*-a; bigarrena, ukapena; hirugarrena, mina eta haserrea; laugarrena da negoziazioa eta bosgarrena onarpena.

**Zela eta zein momentutan berba egin behar da umeekin heriotzaren gainean?**

Umeari galderak sortzen zaizkionean eta galdera horiek planteatzen dizkigutenean berba egin behar dugu eurekin. Gertatzen dena da, askotan, heriotza gertatzen denean bakarrik berba egiten dugula.

## LABUR

### Gipuzkoa klasikoa herrian jokatu da, apirilaren 23an

Uzarragako igoerak 30 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, aurtengo aldirian Gipuzkoako klasikoa izango da, eta apirilaren 23an, zapatua, jokatu dute. Junior mailakoa da lasterketa hori.

Ibilbidea ere erabaki dute dagoeneko; honakoa izango da: Oñatira bi joan-etorri, Deskargatik berriro Oñatira, eta handik, Elorregi auzoa eta Bergara pasatu ondoren, Uzarragan amaituko da.

### Posta bidez botoa emateko aukera, EAJren eskutik

Apirilaren 17an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izango ditugu. Hauteskunde horietan kanpoan daudenei edo botoa ematera joan ezin dutenei euren laguntasuna eskaintzen die Antzuolako EAJK, botoa posta bidez eman ahal izateko. Apirilaren 7ra arte dago horretarako aukera, Jesus Agirrerri deituta (943 76 64 04).



## Korrika Txikia, eskolako umeek

Aurten ere ez da pasatu Antzuolatik Korrika, baina, ohiko moduan, Herri Ikastetxeke neska-mutikoei Korrika Txikia ospatu zuten. Martitzen arratsaldean izan zen hori, herriko kaleetan.

Errekalde auzoan hasi zuten korrikaldia seigarren mailakoek, eta lekukoa pasatuz joan ziren. Antiguatik, Sagasti auzotik eta Kalebarrendik pasatu ondoren, Herriko Plazara iritsi ziren. Umeek ez ezik, gurasoek ere parte hartu zuten Korrika Txikian./A.I.

## KIROLA

### PARTIDUAK

**FUTBOLA**  
Martxoak 19  
10:00: Antzuola-Bergara (Kadeteak)  
12:30: Antzuola-Arizmendi (Infantilak)

**PILOTA**  
Martxoak 18  
20:00: Olalde-Oiarte (Eskuz kad.)  
Ondoren: Olalde-Zumaia (Pala motz.)

### EMAITZAK

**FUTBOLA**  
Antzuola 7 Donibane 0 (Erreg.)  
Antzuola 1 Kostkas 1 (Gazteak)  
Zestoa 2 Antzuola 3 (Kadeteak)  
Urola 4 Antzuola 3 (Neskek)  
Vasconia 3 Antzuola 4 (Infantilak)

**PILOTA**  
Udaberri Saria  
Ikasberri-Olalde (eskuz nag.)... 22-8  
Tartalotxe-Olalde (eskuz kad.)... 6-22  
Kuku-Olalde (pala motzean)... 40-25

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

LEKY-BERRI  
MERENDEROA

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

INDUSTRI MANTENIMENDUA



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko martxoaren 18a / 220. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Kutxako ordezkariak Udaleko hainbat zinegotzi eta alkatearekin izan ziren astelehenean Eguneko Zentroan bisitan.

## Kutxaren 50.000 euro Eguneko Zentrorako

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Adineko sei lagun daude Domingo Iturbe kaleko Eguneko Zentroan. Astelehenean, ordea, jende gehiago izan zen bertan. Kutxak zentrorako dirulaguntza eman duela-eta, bertako ordezkariak gertutik ezagutu nahi izan zuten egoitza.**

Astelehenean, Udaleko eta Kutxako ordezkariak Nagusiendako Herri Zentroan izan ziren bisitan. Bide batez, Kutxako ordezkari Iñaki Almandozek 50.000 euroko dirulaguntza agiria eman zion Patxi Basauri alkateari. Diru hori Nagusiendako Herri Zentrorako erabiliko du Udalak.

Domingo Iturbe kaleko instalazioak ikusi ostean, dirulaguntza agiria eman zion Kutxako Iñaki Almandozek Udalari, Eguneko Zentrorako langile eta erabiltzaileen aurrean egindako ekitaldian.

Patxi Basaurik Eguneko Zentroan esan zuenez, "herri baten dako garrantzitsua da errepideak, kirol instalazioak, eskolak... egitea. Baina zorionez, jendeak gero eta urte gehiago hartzen ditu; beraz, beharrezkoa da euren dako zerbitzuak ere gertatzea. Guk aurrea hartu dugu eta Gipuzkoako herri txikien artean Elgeta izan da lehenengoetarikoa horrelako zentro bat zabaltzen. Horretarako, ordea, dirua behar da, eta, Foru Aldundiko laguntzaz gain, Kutxarena ere jaso dugu; beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu ordezkariari".

*Elgetako zentroa izan da Gipuzkoako herri txikien artean zabaldu duten lehenengoetarikoa*

Elgetako familia batek ere 18.000 euroko dirulaguntza eman duela jakinarazi zuten.

Iñaki Almandoz Kutxako ordezkariak zera esan zuen: "Kutxak garrantzia ematen dio Gipuzkoako gizartearen beharrei diruz laguntzeari. Ondoren, abian ipinitako proiektuak bertatik bertara ikusi nahi izaten ditugu".

Horrelako proiektuen premiari buruz galdetuta zera esan zuen: "Gizartea zahartzen doan heinean beharrak handitu egiten dira. Gure eginbeharra da orain adinekoei laguntzea, gu ere noizbait zahartuko garelako".

### SEI PLAZA BETETA

Izaskun Larrea Gizarte eta Osasun zinegotziak zentroaren gaineko balorazioa egin zuen: "Balorazioa oso positiboa da. Elgeta bezalako herri txiki baten, herritarrei zerbitzu hau eskaintzeko aukera izatea oso ona da. Gainera, horren denbora laburrean zazpi plazatik sei betetzea poztekoa da".

## UDALA

### Aurrekontuak martxoan onartu nahi dituzte

I.A.

Udalak gertu ditu aurtengo behin-behineko aurrekontuak. Orain, alderdi bakoitzak aztertu behar du. Alkatearen esanetan, asmoa da martxoan amaitu aurretik udalbatzarrean onartzea.

Aurrekontuen behin-behineko zirriborroaren arabera aurtengo gastuetarako erabiliko duten kopurua 5.416.000 eurokoa da. Sarrerei dagokienez, berriz, 5.575.280 euro jasoko ditu Udalak. Iaz onartutako aurrekontua 6.808.443 euro izan zen.

### INBERTSIOAK

Aurrekontuetako diru gehiena inbertsioetarako erabiliko dute: 4.000.000 euro, hain zuzen ere.

Hirigintzan egingo dira inbertsio nagusiak. Besteak beste, Torrealdea eta Pagatzako urbanizazio lanak eta Maalako parka egingo dituzte.

Kirolen atalean instalazioak berritzeko erabiliko dute diru gehien. Osasun batzordetik Eguneko Zentrorako; eta Baserritarren batzordetik Uriarte auzorako urak eramateko hirugarren faseko lanak egiteko.

## KULTURA

### 'Perez y Fernandez' obra gaur Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, *Perez y Fernandez* antzezlaia eskainiko du Zanguango taldeak Espaloian 22:30ean.

Patxi Perez eta Txubio Fernandez aktoreak biltegi bateko langileak dira. Egunerokotasunean bizitzen ohituta daude, baina ezusteko batek euren bizitzan hainbat erabaki hartzea eramango ditu. Dena oraingo ematen digutenean askatasuna oztopen izan daitekeela erakutsi nahi dute

lan honekin. Antzerkirako sarrerak hamar euro balio du; zortzi euro Goibeko Kultura Elkarteak bazkideendako.

### BESTE EKINTZA BATZUK

Bestalde, Espaloian hainbat ekintza izango dira egunotan. Martxoaren 20ra arte ikusgai dago Elisabet Egurenen pintura erakusketa. Hilaren 31n ardo dastaketa egongo da 20:00etan. Gainera, zineklubean martxoaren 20an *Troya* filma emango dute; apirilaren 6an, berriz, *Mar adentro*.



Patxi Perez eta Txubio Fernandez aktoreak izango dira Espaloiko taula gainean.



ELKARRIZKETA

JOSE LUIS APERRIBAI/APAIZA

*“Elgetaren gainean hainbat liburutan idatzia jaso eta laburtuta eman dut”*

I.A.

Jose Luis Aperribai bergararra Elgetan ibili zen apaiz bost urtez. Orain Herri nanin dabil langintza berean, baina beste lan batzuk ere egiten ditu. Oraintsu, esaterako, Elgetako historiaren gaineko liburua kaleratu du.

**Nola bururatu zitzaizun Elgetaren historia liburu batean jasotzea?**

Historia aspaldiko zaletasuna da niretzat. Pentsatu nuen bai nik eta baita ondorengoek ere herriko berri izateko interesgarria izan zitekeela idatzita lagatzea.

**Zer jaso duzu liburuan?**

Caro Barojak *Los vascos* liburuan Euskal Herriaren historiaren eta kulturaren zertzelada nagusiak azaldu zituen. Hori oinarritzat hartu eta hark ipinitako ezaugarriekin Elgetaren historia kontatu dut Euskal Herriaren baitan. Testuingurua eman nahi izan diot; herri batetik kontatuz historiako hainbat garaitan Euskal Herrian gertatutakoa. Hori guztia modu eskematikoan.

**Nola bildu duzu liburuko informazioa?**


Elgetan datu asko daude historiari dagokionez, batik bat izkribuetan. Nire asmoa izan da horri lotura ematea. Informazioa jasotzeko Juan San Martinek eta Pedro Zelaiak idatzitako liburuak erabili ditut batez ere, eta beste zenbait ere. Bestetik, liburu osatzeko Udaleko eta elizako artxibotik hartu ditut argazkiak.

**Elgetarrek badute euren herriko historiaren berri?**

Baietz uste dut, gauza asko badakizkitela. Baina beharbada gauza sol teak dira. Beraz, nire liburuarekin egin dudana ekarpena izan da dena batean ematea.

**Elgetan apaiz ibilitako garaitik zer duzu gogoan?**

Bertako jende giroa aipatuko nuke. Bestetik, industriak eta kulturak izan duten garapena aipatzekoak dira.



GOIBEKOKALE

*“Euskal Herrian historian zehar gertatua kontatu dut Elgetako historiatik abiatuta”*


**Liburua egitean aurkituko zenuen bitxikeriarik, ezta?**

Harritu naiz herrian, tunelean, armarrari eder bat izan eta nola ez duten erabili ikur moduan. Bestetik, nahiz eta Elgetan egon nintzenez jendeak horretaz ez hitz egin, gerra kontuak esanguratsua dira Elgetarendako, nahiz eta garai hartan Gernikak hartu zuen izena.

*“Elgetarrek herriko historiaren gaineko gauza solterik badakite; liburuan batean dator”*

**Liburua salgai egongo da?**

Bai, herriko liburu dendan, kioskoan, elizan eta Angiozarko liburutegian ipiniko dugu salgai. Dirua Ruandarako izango da.



**Eskolako jolastokian konponketak**

Herri Eskolan jolaslekuaren egoera hobetzeko hainbat lan egingo dituzte. Izan ere, beheko solairuan dagoen jolaslekuan itoginak izaten dira euria egiten duen bakoitzean, eta arazo hori konpontzeko teilatu iragazgaitza ipiniko dute. Obrak martxoaren 21ean hasiko dira eta umeen oporraldia aprobetxatuko dute lanak egiteko. Kostua 6.940 euro da./I.A.

LABUR

**Eskola Txikien jaietan laguntzeko jendea behar dute festaren antolatzaileek**

Eskola Txikien jaiak ekainaren 12an izango da. Eta jaietan laguntzeko jendea behar dute antolatzaileek. Zerbitzatzen, aparkalekuan, garbiketari lanetan, muntaketan... jardun beharko dute herriarrek. Lanerako prest daudenek izena emateko orriak izango dituzte herriko tabernetan, elkarteetan, farmazian eta liburu dendan. Zerrendak egin ostean antolatzaileek banatuko dituzte lanak.

**Zortzi taldek eman dute izena aurtengo Areto Futbol Txapelketan parte hartzeko**

Izena emateko epea amaituta, zortzi talde daude Areto Futbol Txapelketako parte-hartzaileen zerrendan. Horietatik bi Elgetakoak dira: Txapela eta La Kokotxa, hain zuzen ere. Gaintzeko taldeak Eibarkoak eta Arrasatekoak dira. Partiduak noiz izango diren zehazteke dago, baina aurki hasiko da txapelketa.

**Gaur gauean hasiko da ETB-Kantxa pilota txapelketa Udal Pilotalekuan**

Gaur, barikua, ETB-Kantxa pilota txapelketako lehen partiduak jokatu dira Udal Pilotalekuan 21:00etan. Kadete mailako eta 23 urtez azpiko pilotariak hartuko dute parte, 204 pilotari guztira. Gaur hiru partidu izango dira jokoan. Bihar, 16:30ean hasita lau partidu jokatu dira eta domekan beste lau 11:00etatik aurrera.

**BOLINAGA METALAK**

**SALBADOR 7  
ELGETA 20690  
GIPUZKOA  
TEL: 943 76 80 64  
FAX: 943 76 83 01**

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**

**RECYDE, S.A.**

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

**AENOR ER**  
Enpresa Erregistratua  
ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949



# BOLU SUKALDEAK



2000  
eguneko  
garantia.  
Aurrekontua  
konpromiso  
gabe.



Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE  
ZERBITZURA!!**

**Mota guztietako instalazioak**



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**